

## Estatua irabazi

**E**z naiz pozten krisi ekonomikoa dela eta. Espainian askok iragarri zuten krisiari sorpresaz harrapatu gaituen Estatu Batuetako krisia gehitu zaio, eta konplikatua egin da manio-brak. Ez da nahikoa inbertsioa elektrikoetara pasatzea, obra publikoa handitzea eta BOEak egitea eta egitea. Finantza krisiak tentsioa ematen du, oraingoz, gehien dutenak kezkatzen dituela, kontu korronte batean baino gehiagotan banatzeko



**Jira**  
Uxue Apaolaza

diru nahikoa dutenei. Ez da hala izango; horregatik, gure mendeku gosea hutsean geratuko da; «ikusten?» esan ahal izatea ostu digute neoliberal kontentzietatik; izan ere, ideia gurea ez izan arren, denok bizi dugu sistema bera.

Baina, beharbada, atera daiteke zerbait ona horretatik gutzitik. Krisi serio-rik jasan ez dugun belaunaldia gara, zegoen sistema baizik ezagutu ez duguna, eta historiari jo behar genuen merkatua bere kabuz ez zela orekatzen frogatzeko.

Orain, krisiari ematen ari zaizkion konponbide interbentzionistak ikusirik, ez dago ukatzerik, eta galduko dugunaren ordainetan, ea zentzu eta estatu pixka bat irabazten dugun.

## Begiak

**L**anera noanean eta marea minbera-tzeraino apal denean, Aturri hegiko harkaitzetan ikusten ditut oraindik tri-pak airean hil korrokoainak. Antxeta go-setiek ninikak jaten dizkiete eta zulo huts bi dauzkate muturrean. Iragan udan Uhabia, Zenitz eta Akotz hondartzak bainurako debekatuak zirela ohartzean bezala, dolorez plegatzeo gutziak urratzen nau orduan.

Hainbatetan entzun Jean Michel Bedaxagaren *Arrainak ejer begia* kantua datorrit gogora bai eta Innsmouth edo agian Mischatonic-en kokatzen zen H.P. Lovecraften ipuinaren eduki hezea: hiri ho-

rietarik bateko biztanleek arrain betazal geldoak zituzten eta giro orlegi urrintsan ziharduten.

Zientzi fikziozko istorioetan nola, ez gaituzte argitzen, ez digute esplikitzen, zehazten zergatik gertatzen diren korrokoain azken haste kolektibo horiek. Bakteria bat omen da erruduna. Batzuek diote itsas erdian ontzi kimiko batek kalaxahatu zituela, baina buru adina aburu dago dagoeneko.

Munduko burtsak erortzen direnean ez da unerik egokia korrokoainak suntsitzen dituen minaz solastatzeko, baina erleak ukia dirala halaber, arbolak, jendeak. Kutsatuak gara. Laster, hedailo agertuko gara gu ere Aturri bazterreko harri zikinetan.



**Bira**  
Itxaro Borda

### Zuzendaria:

Martxelo Otamendi

**Zuzendariordea:**

Xabin Makazaga

**Edizio arduraduna:**

Lurdes Huizi

**Argitaratzailea:**

Euskal Editorea SM

**Publizitatea:** Iragarri SM

**Lege gordailua:**

SS-0662/03

**Batzorde parekidea:**

071284059

### Egoitza nagusia:

Martin Ugalde kultur parkea.

Gudarien Etorbidea, z/g.

20140 Andoain.

**Telefonoa:**

(0034) 943-30 40 30

**Faxa:** (0034) 943-30 09 43

**Webgunea:**

www.berria.info

**Posta elektronikoa:**

berria@berria.info

**Publizitatea:**

publi@iragarri.net

**Harpidetza saila:**

(0034) 943-30 43 45

**Date:** 15/10/2008

**Exemplaire:** 1.654

**Editeur:** Euskal Editorea s.l.

**Directeur de publication:**

Martxelo Otamendi

**Commission paritaire:**

071284059

**Delegation Labour:**

Lisses 3, 64100-Baiona.

Tel.: (0033) 559256220.

Fax: (0033) 559254303.

E-mail: lapurdi@berria.info

### ORDEZKARITZAK

**Araba:** Bizenta Mogel, 6.

Posta kodea: 01008

**Gasteiz.** Telefonoa:

945-15 04 52. Erredakzioko

faxa: 945-14 83 07.

Posta elektronikoa:

araba@berria.info.

**Bizkaia:** Uribitarte kalea, 18,

3. C. Posta kodea: 48001

Bilbo. Telefonoa:

94-435 26 00. Erredakzioko

faxa: 94-423 49 75.

Posta elektronikoa:

bizkaia@berria.info.

**Lapurdi:** Lisses, 3. Posta

kodea: 64100 Baiona.

Telefonoa: 559-25 62 20.

Faxa: 559-25 43 03.

Posta elektronikoa:

lapurdi@berria.info.

**Nafarroa:** Iratxe Monasterio,

kalea, 45, 13. Posta kodea:

31011 Iruñea. Telefonoa:

948-36 66 22.

Publizitatea: 948-36 66 23.

Posta elektronikoa:

nafrroa@berria.info.

# Indarkeria sexistari buruzko oker batzuk

## Maitena Monroy

Bizkaiko Emakumeen Asanbladako kidea

**J**oan den astean, gure herrialdean berriki gertaturiko eraso sexistarik bortitzetako biren berri jakin dugu: batean, emakume gazte bat hil du bikotekideak, Santurtzin; bestean, sexu eraso bortitza egin diote emakume gazte bati, Bilbon. Zoritxarrez, asteroko estatistika askoz ere zabalagoa da, nahiz eta bi gertaera horiek komunikabide guztietan agertu diren, beren gordinkeria eta lazgarrikaria gutzitatik. Seguruenik, herritar asko lotsaturik eta haserre sentituko gara, ikusirik mundu honetan emakume izatea arrisku larria dela oraindik ere. Orain, erasotzaileak salatu eta arbuia besterik ezin dugu egin, eta biktimei elkartasuna eta konpromisoa adierazi, baina berandu da jadanik. Bitxia da, baina kasutako bat genero indarkeriako epaitegi deitzen zaien horietako batean epaituko dute —deiturak okerra da inondik ere, gako sexistimoa baita—, eta bestea, berriz, sexu eraso, ez dute genero indarkeriatzat joko.

Azken urteotan, ikusi dugu agerian geratu dela harreman afektiboetan gertatzen den indarkeria sexistaria, baina horrek ekarri du indarkeria sexistaria zatika ikustea, bere osoan ikusi beharrean. Analisi oker larria da, eta, ondorioz, mito eta jarduerak oker asko zabaltu dira, NBREn hitzetan esanda, «gizadien gehien zabalduriko krimen ezkutuko» eragozteko eta borrokatzeko baliabideak lantzerakoan.

Zein dira oker horiek? Aurrenak zerikusia du indarkeriaren zergatiarekin eta sorburuarekin. Argi dago, zerbaiti tratamendu egokia jarri ahal izateko, ezinbestekoa dela, arazoa aztertu eta borrokatzea ez ezik, diagnostiko etiologiko ona egitea ere. Ikus dezagun banaka zer galdura egin beharko genituzkeen:

Munduan ba al da indarkeria espezi-fiko bat emakumeen kontra, emakume izateagatik? Erantzuna, zoritxarrez, baiezko borobila da.

Nondik dator? Indarkeria horren sorburua, azken 30 eta gehiagor urtean organizazio feministek salatu dugun bezala, sexistimoa da, eta ez besterik; sexistimoa indartu egiten da indarkeria erabilita, eta, era berean, sexistimoarentzat irauteko tresna bat da indarkeria. Sexistimoak jokabideak (generoa) zehazten segitzen du, eta boterea bantzen, sexuen arabera.

Ezin ahaztu dugu indarkeria zerbaitetarako tresna bat dela erabiltzen duenarentzat, baina, era berean, erabiltzeko tresna nahi den zernahi talde zapaltzeko baliabide ezin hobe dela, kasu horretan emakumeak zapaltzeko. Indarkeriari heltzeko orduan, kontuan izan behar dugu ez direla kasu bakanak, baizik eta egitura sexistaria baten barrerian daudela, egitura horrek zilegitasuna ematen diela eta, horregatik, delitu bakarra dela non biktima errudun sentitzen den eta erasotzailea bere delituaren ondorioen biktima sentitzen den, «azken bantean egin behar zuena egin baitzuen, tratatu txarrak ematen baitzuen, edo emakumeak probokatu baitzuen, sexu eraso egin badu».

Matxista bortitzenek 70-90 ema-

kume hiltzen dituzte urtean, baina indarkeriak baditu beste datu odoltsu batzuk Espainiako Estatuan; esaterako, bi milioi emakumeri baino gehiagori tratatu txarrak ematen dizkiete (Emakumearen Institutua, 2005), eta zortzi bortxaketatik bat bakarria salatzen da, guztira 20.000 izaki (Urta, 2003). 2000. urtean, Europako Kontseiluak ohartarazi zuen indarkeria sexistaria dela 16-44 urte bitarteko emakume europarrak hiltzeko edo elbarri geldituzeko lehen eragilea. Indarkeria, zuzenean, emakume jakin batzuek sufritzen dute, baina, oro har, emakumeek beldurra diote indarkeriaren biktima izateari. Horren ondorioz, emakumeok bizitzan dugun jarrera «nahi bai baina ezin» halako bat da, eta gizonena, aldiz, «nahi dut edo ez dut nahi».

Indarkeria sinboliko horren erakusgarri bat agertzen da gure inguruko emakumeei galdetzen diegunean ea berdin eta toki berberetan ibiltzen diren eguez eta gauez. Autodefentsa feministako ikastaroetan dabilzan emakumeek, esaterako, esaten dute emakume izate dela segurtasun falta eragiten duten faktoreetako bat. Segurtasun falta edo beldur horrek ederki mugatzen ditu giza eskubideak, eta, era berean, ederki mugatzen du modu librean aukeratzeko gaitasuna. Beraz, defizit demokratiko larria dakar.

Baina orain galdetu beharko genuke nola indartzen den gizartean emakumeen beldurra eta ahultasun sentipena, eta nola indartzen den indarkeria maila batzuen erabilera «toleratzeko modukoa», bai kultura transmititzeko tresnen bitartez —emakumeen gorputza ob-

jektu bihurtuta, maitasuna jabetza gisa hartuta, maite zaituenak negar eginaraziko dizula sinetsarazita...— eta bai gazteei bidaltzen dizkiegun mezuen bitartez —«kontuz zer egiten duzun, norekin zozen, ero asko dabil kalean»—; horrek guztiak segurtasun falta handitu besterik ez du egiten, mezu horiek ez baitute azaltzen norengandik edo zergatik babestu behar dugun geure burua, eta ez baitigute erakusten nola babestu behar dugun. Gainera, horrek guztiak lagunduko egiten du emakumea erruduntzat jotzen zerbait gertatzen bazaio, eta uste ustelak zabaltzen ditu erasotzaileari eta haren motibazioei buruz. Alde horretatik, nahikoa da gogoraraztea nola erantzun ohi duden erasotzailearen inguruak, haren delituaren berri dakienan: gizon «normala» dela esan ohi du. Bi elementu interesgarri daude horretan: bata, zer den gizon normala izatea, beharbada normaltatz jotzen delako gizonek portatara sexistak izatea; bestea, erasotzailea zer gizon mota izatea espero dugun.

Horiek denak beharrezko elementuetako batzuk besterik ez dira, beharrezkoak gaia aztertu eta konponbide eraginkorrak emateko. Izan ere, indarkeria hori sexistaria eta egiturazkoa dela ahazten badugu, ezinezkoa da indarkeria selektibo, zabaltu eta unibertsal hori aztertzea eta borrokatzea.

Zoritxarrez, bi emakume horietzat berandu iritsi gara, eta orain justizia sistemak jardun behar du delitugile horien kontra. Baina ez dugu ahaztu behar gure esku dagoela erasotzaileak geldiaraztea eta, gure kontzientzia ez-sexistaren bitartez, haien ekintzei zilegitasuna kentzea. Horregatik, lanean segituko dugu kalean, tabernetan, ikastetxeetan, lantokietan, etxetan eta nonahi, sexistimoa eta haren indarkeria borrokatzeko eta salatuzko. Konpromiso garbi batekin: nik ez baitut erasorik egiten eta ez baitut onartzen inork emakumei erasotzerik.

(Erredakzioan itzulia)